



Iraunkortasunabuletina


2024ko ekainaren 26a, asteazkena

Zenbakia: 14

CAMPUS BIZIA LAB

CBL 2024/25 deialdia: eskaerak aurkezteko epea zabaldu da

Unibertsitatearen beraren iraunkortasun-erronka baten inguruko proiektuak garatzen dituzten eta EHUagenda 2030en helburuei erantzuten dieten lantaldeei (irakasle eta ikertzaileak, AZL eta ikasleak) zuzenduta dago. [Kontsultatu informazio guztia hemen.](#)



CAMPUS BIZIA LAB.

KONGRESUA



UPV/EHUko Ikasleen VII. Kongresua: IIP bila

Urriaren 26an egingo den ekitaldia prestatzen hasi gara. Lehenik eta behin, ikasleen ekarpenak ebaluatuko dituen batzorde zientifikoa eratuko dugu, eta, horretarako, ezagutza-arlo guztietako irakasle eta ikertzaileak bilatu nahi ditugu. Interesatzen zaizu? [Email](#) honen bidez jar zaitezke harremanetan.

ALBISTE INTERESGARRIAK

Iraunkortasunerako Hezkuntza Eskola 2030: inpaktua neurtzearen bidez aurrerapenak behatuz

Gizartean lortu nahi ditugun helburuak eta aldaketak lortzen ari al da ingurumen-hezkuntza? IHOBek eta EHUren Udako Ikastaroen Fundazioak aurrez aurreko prestakuntza hau antolatu dute, uztailaren 4an eta 5ean, Donostiako Miramar Jauregian. [Matrikulatzeko](#) epea zabalik dago.



Sustainable Development Report 2024

Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Konponbide Sareak (SDSN) Garapen Iraunkorrari buruzko 9. txostena argitaratu du. Txostenak, mundu osoko 100 zientzialari eta profesional nabarmenen babesarekin, GJHen finantzaketan dauden gabezia kronikoei aurre egiteko bost estrategia biltzen ditu.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/07/03- 2024/07/05. [SEED. International Conference on Sustainable Energy Education.](#)

2024/09/08-2024/09/10. [VI annual International Higher Education Summit Conference \(HES\).](#)

2024/10/10-2024/10/11. [2nd Transatlantic Symposium on Sustainable Development in Higher Education.](#) The submission deadline for abstracts is June 30th.

2024/10/26. [EHUko ikasleen VII. Biltzarra Gure Gradu Amaierako Lanek \(GrAL\) mundua aldatzeko balio dute](#)

2024/10/23-2024/10/24. [Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko VI. Kongresua.](#)

NEWSLETTER HAU ZURE NEWSLETTERRA DA

2.500 harpidetu baino gehiago ditugu dagoeneko. Buletin honetan jasagarritasunarekin zerikusia duen edukiren bat ezagutzera eman nahi baduzu, idatziezaguzu iraunkortasuna@ehu.eus helbidera.